



HCRE

PROIEKTUA

Aurkibidea

SARRERA	3
IRIZPIDEAK	4
XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK	5
KIROL ORGANIGRAMA	6



SARRERA

Txosten honetan HERNANI CLUB RUGBY ELKARTEKO proiektua aurkeztuko da.

Eguneratutako proiektu honek ez du aurrekoarekiko haustura bat suposatzen, eta aurrera egiteko eta gaur egungo lehiaketa baldintzetara egokitzeko aurrerapausoak emateko bidea markatuko du.

Proiektu hau 2-4 urteren barruan gauzatzeko erronka hartuko da, hau da gehienez 2024ean hein handi batean behintzat, gauzatuta egon beharko luke.



IRIZPIDEAK

Helburu nagusia datozen lau urteetan klubaren egitura sendotzea izango da, etorkizunean etorriko diren erronka guztiei aurre egiteko prest egon gaitezen.

Aurrera egiteko garaia dela ulertzen dugu, baina klubak bere historian zehar izan duen izaera berezi horri, beste klubetatik nabarmendu gaituen nortasun horri, edo eta momentu zailenetan bultzatu gaituen marka propio horri helduz.

Kirol egitura hau sendotzeaz ari garenean, klubera hurbiltzen den pertsona orori esparru abegikorra eskaintzeaz ari gara, non bertan disfrutatu eta geldituko diren. Ez dugu klubeko ateak irekitzera soilik mugatu nahi, klubaren egituran murgiltzea baizik: taldeetan, entrenatzaileen artean, zuzendaritzan, kaptazioan, gizarte lanetan ...

Honek, gure nortasunean hain garrantzitsua den auzolana indartuko du.

Nabarmentzen den moduan zuzendaritza honen ardatz nagusietako bat gizarte arloa da. Oso argi dugu, eta oso argi utzi nahi dugu gure xedea ez dela errugbira jokatzea soilik, errugbia praktikatzen duten PERTSONAK heztea baizik.

“Berritu hala hil” leloari so eginez kirol proiektuaren erroak, 2014ean osatutako “HCRE FORMAZIO PLANA; JOKALARIEN GARAPENA EPE LUZERA LEHEN TALDERAKO BIDEA” txostenaren oinarrietatik abiatuta eta 2020ko ekainean osatutako “HCRE IBILBIDE TEKNIKO-TAKTIKOA” lan bikainera helduz, amaigabeko progresioaren bila ekinez.

Helburu honekin gure lanaren ardatz izango diren zenbait jarraibide azpimarratuko ditugu:



XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

XEDEA

Errugbiaren bidez, pertsonen arteko elkarbizitzarako ezinbestekotzat jotzen ditugun printzipio eta gizarte balioak sustatu eta garatzea, Hernaniko eta inguruko biztanleen “bizigarritasuna” hobetze aldera, komunitate anitza sortuz eta kooperazio eta talde laneko espazio baterako, eta oro har klubaren proiektura, sarbidea emanez.

IKUSPEGIA

HCRE elkarte irisgarria eta hurbila da, herriarekin erabat identifikatzen dena eta estatu mailan erreferentea bere harrobiagatik, talde lanagatik, formazioagatik eta jokalaria, entrenatzaileak eta zaleak klubean integratzeagatik. Helburu hori lortzeko klubeko kideok elkarrekin lan egiten dugu, klubaren kultura eraldatu eta inguruneak eskatzen duen gizarte aldaketei egokitzeko. Partaide guztientzat kirol zuzendaritza eta kudeaketa zuzena egitera bideratua, hauen generoa eta maila edozein dela ere. Klubak, bere osotasunean, klubeko maila ezberdinetako partaideak bere hartuko ditu, generoa, gaitasuna, jatorria edo egoera soziala aintzakotzat hartu gabe. Hala, klubaren oinarritzko kultura etengabe eta modu dinamikoan agertoki segurua eta erakargarria eskainiko duena izan dadin, kide guztiok modu aktiboan parte har dezagun motibazio, ardura eta konpromiso handiagoarekin egokitzen zaigun rolaz jabetuz.

BALIOAK

Umiltasuna eta Errespetua: Pertsonak izateko oinarria baita.

Zintzotasuna: koherentzia, errespetua, zintzotasuna. Sinesgarritasuna edukitzeko oinarria baita.

Lankidetz: talde lana eta gizarte erantzukizuna sustatuz formatzen baikara.

Inklusioa: aniztasuna onartzen dugu eta osotasunaren zati egiten dugu.

Solidaritetea: bakarkako zein taldeko gure ekintzak hobetzeko izpiritua, taldekideei lagunduz.

Jendarte konpromezua: komunitatean interesa bilatuz, atxikimendu irekiak edukiaz, bolondres eta erantzun sozialaz arduratuta.

Berdintasuna: Guztiok gara berdinak HCREn

Euskara: Gure hizkuntzarekiko engaiamendua nabarmentzen



Lehiaketari dagokionez, klubak azken urte hauetan jorratu duen bidean jarraitu nahi dugu, hau da, gure izaera propioari jarraituz ahalik eta maila gorenean jokatzeari, maila guztietan.

Hau aurrera eramateko, gure lehentasuna senior mailara iristen diren neska mutikoen kopurua eta maila teknikoa bermatzea izango da.

Bide honetan Hernaniko Errugbi Eskola (errugbiaren hastapena) eta Errugbi Akademia (errugbiaren garapena) sendotu eta Senior mailako talde erdi-profesionalak garatzeko pausuak eta ahaleginak egingo ditugu, bai gizonezko zein emakumezkoen taldeetan.

Hauek izango dira gure egitura sendotzeko jarritako helburuak, baina atal bakoitza bakarka eta bereziki aztertuko dugu. Enbor beretik ateratzen diren adarrak direnez, elkarren arteko lotura izango dute.

RUGBY ESKOLA; Errugbiaren hastapena

- Jokalari kopurua handitzen jarraitu (neska-mutilak).
- Ekintza gehiago antolatu (Landaren, kalean, txapelketak, txangoak, Udalekuak...)
- Kalitatezko entrenamenduak eta ekintzak eskaini.

RUGBY AKADEMIA; Errendimenduaren hastapena:

- Seniorretara igoko diren jokalarien maila handitu.
- Jokalarien parte hartzea sustatu.
- Jokalarien osasuna eta kirolean ongi izatea zaindu.
- Pertsonak formatu

SENIOR MAILA; Errendimendu taldeak:

- Jokalari guztiei errugbia praktikatzeko aukera anitzak sortu eta eskaini.
- Jokalarien parte hartzea bultzatu, klubeko egitura osoan.
- Nesken talde egonkor bat osatu.
- Talde erdi-profesionalak osatu.
- M23 adineko taldea birstortu eta egonkortu.

Entrenatzaileak:

- Entrenatzaileen formazioa bultzatu.
- Entrenatzaile guztien arteko lan amankomuna bideratu
- Entrenatzaileen kaptazioa landu.
- Euskarak izan behar du komunikazio hizkuntza nagusia.



BESTE KLUBEN ARTEKO LANKIDETZA (HCRE-ATLETIKO SS-STADE HENDAYAIS-IPARRALDEA):

ATLETIKO SSeekin daukagun lankidetzari dagokionez, egun HCREren filiala izanik, bi klubek adin maila guztiak izan beharko dituzte, indibidualki hartuta, nahiz eta hastapenean behintzat, elkarren arteko laguntza sustatuko den, baina helburua klub bakoitzak bere egitura osoa osatzean datza.

Buruntzaldea eta Donostialdeako eskoletan errugbia ezagutzera eman.

Bi Zuzendaritza teknikoaren arteko koordinazioa eta helburuen adostasuna bultzatu.

Iparraldeko klubekin lankidetzari jorratzen jarraitu, bertako txapelketa eta torneoetan parte hartzeko aukerak aprobetxatuz

KIROL ORGANIGRAMA

Organigrama teknikoa aparteko txosten batean irudikatu eta zehaztuko da. Kirol zuzendaritzako arduraren lagun bakarraren gainean egon beharrean Kirol Zuzendaritzarako talde bat osatuko da, non era berean talde honen barruan gaudenok gure arduraren zehatzak edukiko ditugun. Hau bermatu ondoren arduradun bakoitza bere lanerako taldea ere osatu beharko du, behar izan ezker.

Lehendakaritzak Zuzendaritza talde honetan hartuko diren erabaki guztien onespina bermatuko du, eta bertan behera uzteko ahalmena ere edukiko du.

Hasiera batetan egitura hau edukiko du edo lan ildo hauek markatuko ditugu:

KIROL SAILA

Jokalarien formakuntza prozesua hobetzeko bidean, entrenatzaileei tresnak eman eta klubeko "joko ildoak" bideratzea izango da talde honen lana.

Horretarako, ibilbide tekniko-taktiko bat jaso dugu, non, ondorengo atalak agertzen diren:

- Defentsaren zein erasoaren alderdi tekniko-taktikoen zehaztapena eta azalpena.
- Adin bakoitzean neurgarriak eta zehatzak diren helburuen zehaztapena.
- Adin bakoitzean landu beharreko eduki tekniko-taktikoen zehaztapena.
- Errugbiko keinu tekniko nagusien azalpena eta lanketa proposamenak.

Ibilbide tekniko-taktiko honek ez du definitiboa izateko helbururik, guztiz kontrakoa, denboraldian bertan zein denboraldi bukaeran, helburuak doitzeko, akatsak zuzentzeko eta honen inguruko iritziak elkar banatzeko tresna edo gida izateko helburua baizik. Horretarako, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu guztion arteko etengabeko komunikazioa bermatzea eta ahalbideratzea.

Kaptazioaren bermea eskoletan eta kalean (Udalekuak)

EGITURA SOZIALA

- Klubaren inguruan biltzen den jendarte edo "masaren" kudeaketa. Gurasoen mundua batez ere. Kluba etxea bihurtu
- Ekintza ezberdinen balorazio ekonomikoak
- Beharrezkoak izango diren azpiegituren azterketa
- Komunikabideetan eragina

